

1884

Argazkilaritza Lekeition



Luis Maria Cenigaren argazkia. Ceniga familiaren artxiboa

Liburuki honi argazkiekin emango diogu hasiera. Nahita amaitu genuen aurreko liburua 1884. urtean, basilikaren ospakizunekin, bagenekielako aurrerantzean argazkiak ugarituko zirela. Lehen liburukian argazki aurreko Lekeitio erakutsi nahi genizuen, bigarren honetan argazkiak izango dira nagusi.

1884an Eliza berritzu zenean, hain harro zeuden lekeitiarrak Udalak momentua betikotu nahi izan zuela¹. Horretarako Regil argazkilari ospetsua ekarri zuten eta argazki bi agindu. Hala ere, ez da Udal artxiboan agertzen den lehen aipamena, F. M. Comadira argazkilariaren 1879ko faktura bat dugu -Lekeitioko bista bat atera zuen Udalaren enkarguz². Zoritzarrez ez ditugu eza gutzen Comadira eta Regilen argazkiak. Baliteke lehenagoko argazkiak ere egotea, kontuan izan dagerrotipoa 1839an asmatu zela eta Bilbon 1850 eta 1860. hamarkadetan argazkilariak estudio iraunkorrak zabaldu zituztela. Gainera, arraroa egiten zaigu Isabel II.a eta gortea Lekeition egon zirenean argazkilaririk ez hurreratzea hona.



Lekeitioko Udal kontuetako Comadira argazkilariaren faktura, 1879. LUA

1 LUA/Udal aktak, 1884-7-17: "... la idea de que antes de inaugurarse el citado templo procedia dada la belleza del mismo, se sacaran fotografias asi del interior como de la parte exterior, asintio la Corporacion a tal propuesta".

LUA/Udal aktak, 1884 8-7: "Fotografias de la parroquia ... acuerdo el ayuntamiento se avisara al Sr. Regil proponiendole para que viniera a sacar las 2 fotografias, la del interior y exterior de la parroquia, mediante la cantidad de 1.000 reales con la condicion de si las pruebas o primeras fotografias fuesen del agrado del ayuntamiento venderia las copias de 40x20 cm. de dimension las mayores y de 24x18 las pequeñas a 10 ptas. las primeras y a 5 las segundas obligandose de todos modos el Ayuntamiento a abonarle 1.000 reales por la ejecucion de las pruebas o primeras fotografias".

2 Fakturak dakarrena:

Por la 1ª positiva de 1 vista Reales vellon 70

Lequeitio 6 Setiembre 1879

F. M. Comadira Fotógrafo

Nota. El precio que fijó es todo lo mas económico posible. Si este trabajo hubiera sido acompañado de un número regular de copias podia haberse conseguido la 1ª mas barata.



J.J. Uribarrenen argazkia, Levitsky, c. 1860. LUA



Pascual Abaroaaren argazkia, Aloph. 1860ko hamarraldia? LUA



Larrazabal familiaren albuma

Pertsonen estudio-argazkiak arruntagoak dira. Udal artxiboan batzuk daude, ezagunenak bata J. J. Uribarren agertzen dena, derrigorrez 1862 aurrekoa eta bestea iloba Pascual Abaroarena (seguraski 1860. hamarkadakoa) biak argazkilari ospetsuek Parisen ateratakoak, Uribarrenena Levitsky argazkilariarena (Levitsky, 22, Rue de Choiseul, Paris), eta Abaroarena Alophena (G. Le Gray & C., 35, Boulevard des Capucines, Paris). Familia-artxiboetan ere ibili gara eta *cartes de visite* gehiago aurkitu ditugu, zoritxarrez, askotan erretratatuaren izen barik. Halakoetan argazkiak ez du ezertarako balio! Irakurri dugu Disdéri argazkilariak patentatu zuela argazki mota hau, “carte de visite portrait photographe”, 1854an eta 1859tik aurrera hedatu edo jendarteratu zela Frantziako enperadore zen Napoleon III.aren argazkiari esker. Jakina, jendarteratze hori aberatsen artean gertatu zen. Ez zen horien etxeetan *carte de visite*-z betetako albumik falta!

Gure argazkilariengana bueltatuz, esan dugu Bilbon zabaldu zirela lehenengo argazki estudioak. Gero 1870-80ko hamarkadetan Bizkaian zehar hedatzen hasi ziren. Aipatutako F. M. Comadira Gernikan eta Lekeition F. Zabala delako bat. Ez dakigu apenas ezer Zabalaz ez baitugu bere aipamenik aur-



Albumeko orrialdeetako bat: Jose Luis Abaroa eta Juan Pantaleón Arancibia.



Eusebio M^a Azkueren argazkia, 1860ko hamarraldia? Euskaltzaindiako Azkue biblioteka eta artxiboa



F. Zabala argazkilaria

kitu gure artxiboetan. Zergatik ez zitzaion eskatu aipatutako 1879 edo 1884ko lana? Badi-rudi orduko hartan ez zegoela argazkilaririk Lekeition. *Argazkilaritzatik zinemagintzara, Bizkaia 1839-1959* liburuaren arabera F. Zabalaren negozioaren kokapena Lekeition eta Uberuagan zegoen eta XX. mende hasieran J. Sosa delako bat etorri zen Lekeitora. Honi buruz bai ez dakiguna ezer, *ixez*, ondarrutarrez. Jacinto Garamendi hobeto ezagutzen dugu, erloju saltzaile eta argazkilaria izan zen. 1922an argazkilari legez agertu zen jai-programa batean eta ofizioan jarraitu zuen gerrara arte.

Momentuz kanpoan utzi ditugu gure -eta ez gure- argazkilari amateurrak -eta ez hain amateurrak-. Agertuko dira agertu behar direnean.